



*Maiatzaren 28, 29 eta 30erako erregistratu dituzte gaur, Bilbon, Eusko Jaurlaritzaren egoitza. LAB, ELA, UGT, ESK eta CCOO sindikatuok deitu dugu grebara.*

Haxe da Garbialdiko langileek egindako oharra:

6 urte igaro dira Aldundiko Garbitzaileek hitzarmena negoziatzeari ekin genionetik eta gure soldatak 2010. urtetik izozturik daude.

Enpresa esleipendunak, Garbialdik, egiten duen eskaintza ekonomikoa, erraz laburbildu daiteke: %0,3ko igoera 2017. urterako, aurreko urte guztietan %0koa izanik eta 0 ere 2018 eta 2019 urteetarako. Hara, 0,14€-tako soldata igoera 8 urteetako epe batean -eta horrenbeste lanaldi osoa dutenentzat, jakina-.

Enpresak erakusten ari zen borondate faltaz nazkatuta eta azken urteetan jasan ditugun murrizketak salatzeke helburuarekin, pasa den abenduaren 5ean asteroko mobilizazioak martxan ipini genituen. Astearte horretatik, ez dugu inoiz deialdi horietara hutsik egin.

Azken asteetan protestak areagotu ditugu gainera: Ogasuneko eraikinean egunero kontzentratu izan gara bost urteetan zehar eta baita karpa iraunkor bat ipini dugu Jauregi Foralaren aurrean gure errealitatea ezagutzera emateko. Protesta hauetara eraman ditugun pankartetan hurrengoko leloak irakur zitezkeen: "GARBIALDI, ALDUNDIA: NEGOTIAZIOA ORAIN" edota "ADITU NAHI EZ BADUZUE, ENTZUNGO GAITUZUE".

Gure errealitatea ezagutzera emateko eta egoera desblokeatzeko burutu ditugun ekintzen artean, Enplegu, Gizarte inklusioa eta berdintasun saileko diputatua den Teresa Laespadari eta Aldundiko Zerbitzuen Zuzendari nagusia den Jesus María García Larraganeri gurekin batzar zitezela eskatu genien. Ez bata ez besteak ez dute interesik azalarazi batzar horren inguruan.

Aldundiko zentroak garbitzen ditugun langileak gara. Denbora luzez gure hitzarmena erreferentziazkoa izan zen sektoreko beste lankide batzuentzat, baina

azken urteotan errealitate hau karkaildu egin da, gaur egun, jasanezina izatera heldu delarik.

Zortzi urte pasa dira gure soldatak izozturik daudenetik, lan-zamak etengabe areagotzen dira bajaran dauden lankideak ordezkatzeko ez dituztelako eta bakante gelditzen diren lanpostuak amortizatzen dituztelako, lanaldiak murriztu dira, eta gero eta gehiago dira gaixotasun profesionalak direla eta behin-behineko ezgaitasun egoeran dauden langileak.

Egoera honetaz nazkatuta gaude. Kontuan har gaitzate eta Aldundia gatazka honen ebazpen baketsuan parte har dezan nahi dugu, Garbaldi mugitzera behartu dezala.

Horregatik maiatzak 28, 29 eta 30ean 3 greba egun aurrera eramango ditugu. Aldundiko arduradunak, omisioagatik bere lan zentroak garbitzen ditugun langileen prekarizazioan laguntzen ari dira eta egoera honi amaiera ipini behar diogu.

—